



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilak 31

Vitoria-Gasteiz, 31 de enero de 2017

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAREN USTEZ, GOBERNU ESPAINIARRAK ILUNBE ZEZENKETA IKUSKIZUNETARAKO ERABILTZEARI BURUZKO HERRI KONTSULTA BAIMENDU BEHAR LUKE

- Eusko Jaurlaritzak kontsultaren aldeko txosten bat egin du, Donostiako Udalak eskakizun guztiak betetzen dituelako, prozedurazkoak eta materialak, bere herritarrei kontsultatzeko Udaleko Osoko Bilkurak gehiengo osoz adostutako baldintzetan.

Eusko Jaurlaritzak txosten bat igorri dio Gobernu Espainiarrari Donostiako Udalak herri-kontsulta bat egitearen alde baliabide eta instalazio publikoak zezenketa-ikuskitzarako egiteko erabiltzeari buruz. Erabaki hori gehiengo osoz hartu zuen udal horretako osoko bilkurak joan den urriaren 27an.

Eusko Jaurlaritzaren txostenak dioenez, *Presidentzia eta Lurralde Administrazioetarako Ministerioak* baimendu egin behar luke herri-kontsulta hori, Donostiako Udalak eskakizun guztiak betetzen dituelako, prozedurazkoak eta materialak, euskal eta espainiar legerian kontsulten arloan aurreikusitakoak.

- **Prozedurazkoak:** Donostiako Udalaren erabakiak Udaleko Osoko Bilkuraren gehiengo osoaren sostengua du.
- **Materialak:** araudiak herri-kontsultak egiteko eskatzen dituen lau eskakizun materialak betetzen dira:
 - ✓ *“Gaia udal-eskumenenekoa da”:* Donostiako Udalak auzotarren herri-kontsultaren mende jartzen du erabilera anitzeko udal-instalazio bat, *“jabari publikokoa”* dena, erabiltzea ala ez. Izan ere, udal-ondasunen inbentarioak *“erabilera anitzeko pabilioi”* gisa kalifikatzen du, eta hitzez hitz aipatzen ditu *“zezenketa-erabilera, kirol-jarduerak edo ikuskizun alternatiboak”*.
 - ✓ *“Gaiak tokikoa izan behar du”:* Auzitegi Gorenaren 1989ko azaroaren 14ko epaiaren irizpideari jarraikiz, ez dago zalantzarik udalerriko lurralde-esparruan duela eragina, Donostiako muga geografikoak gainditu gabe.
 - ✓ *“Garrantzi bereziko gaia auzotarren interesentzat”:* Donostiako herritarrentzat interes argia duen gaia da.
 - ✓ *“Toki Ogasunari buruzkoak ez diren gaiak”:* ez da kasua.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKADIKO ENPRESA I+G BULTZATZEKO HAZITEK PROGRAMAK BERE ARAUDIA EGUNERATU DU PROIEKTUAK OPTIMIZATZEKO

Eusko Jaurlaritzak erabaki du Euskadiko Enpresa I+G bultzatzeko HAZITEK programa arautzea, batetik, bere funtzionamendu operatiboa hobetzeko eta, bestetik, esparru honetan zehaztutako lan-estrategiara hobeto egokitzeko.

Ikusi da komeni dela araudian aldaketak egitea hauteman den behar bati erantzuteko, laguntzak epe operatibotan ebazteko, alegia. Era horretara, bultzatzen diren eta enpresa txiki-txiki nahiz ETEetara eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratuta dauden eragile zientifiko teknologikoetara bideratuta dauden I+G proiektuen trakzio-eragina, eta motibatzailea, lortuko da, horixe izanik berez helburua, oinarri teknologikoa duten enpresa berriak sustatzeko proiektu lehiakorretarako.

Programa, beraz, bi fase ezberdinetan antolatuko da hemendik aurrera:

- Fase bat izango da proiektuak aukeratzekoa, aurrekontu-kudeaketa alde batera utzita; barne hartuko ditu lanen aurkezpena eta ebaluazio teknikoa, eta amaituko da onartutako proiektuak aukeratu eta jakinarazten direnean.
- Bigarren fasea laguntzak ematekoa izango da, eta aurreko fasean aukeratu diren eta programako baldintza guztiak betetzen dituzten proiektuei emango zaien laguntza erabakiko da.

Aldaketa honekin lortu nahi da erakunde onuradunei exekuzio-aldiaren hasieran, edota abian jarri aurretik ere bai, jakinaraztea zein proiektu onartu diren, eta horrek ahalbidetuko du proiektuek espero den eragin bultzatzailea izatea eta, aldi berean, horien planifikazioa hobetzea.

Bestalde, araudian tramitazio telematiko/elektronikoa sartuko da.

JAURLARITZAK ERABAKI DITU EUSKADIKO INDUSTRIALDEETAN BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALEKO SAREAK HEDATZEKO LAGUNTZAK

Jaurlaritzak erabaki ditu Euskadiko industrialdeetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzak. Informazio honi buruzko xehetasunak laster aurkeztuko dira foru aldundien prentsaurreko bateratu batean.

Ogasuna eta Ekonomia

**DEKRETUA, BAIMENA EMATEN DUENA EUSKADIKO AURREKONTUEI
BURUZKO LEGEAREN LUZAPEN ERREGIMENEAN 2017rako
AURREIKUSITAKO ZORPETZE ERAGIKETAK EGITEKO, GEHIENEZ 1.451
MILIOIO EUROKO ZENBATEKOAZ**

Gobernu Kontseiluak, 2016rako aurrekontuak onartzen dituen legeak ekitaldi honetan zorpetze-arloan onartu eta aurreikusitakoari jarraikiz, zorpetze-eragiketak baimendu ditu, luzapen-erregimenean.

2016ko itxieran zorpetze-eragiketak eta 2017an zehar egin behar diren amortizazioak kontuan izanda, ekitaldi honetan formalizatu behar den zorpetzearen gehieneko zenbatekoa 1.451 milioikoa da.

Ekitaldi honetan formalizatzen den zorpetzea 2017rako adostutako zor publikoaren helburua betetzea bermatu beharko du.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO CREE QUE EL ESPAÑOL DEBERÍA AUTORIZAR LA CONSULTA POPULAR SOBRE EL USO DE ILUNBE PARA ESPECTÁCULOS TAURINOS

- **El Gobierno Vasco ha emitido un informe favorable a la consulta porque el Ayuntamiento de San Sebastián cumple todos los requisitos, procedimentales y materiales, para consultar a su ciudadanía en los términos que acordó el Pleno municipal por mayoría absoluta.**

El Gobierno Vasco ha remitido al Gobierno español un informe favorable a que el Ayuntamiento de San Sebastián pueda realizar una consulta popular en su municipio sobre el uso de recursos e instalaciones públicas para la celebración de espectáculos taurinos, una decisión acordada por la mayoría absoluta del Pleno de este ayuntamiento el pasado 27 de octubre.

El informe del Gobierno Vasco considera que el *Ministerio de la Presidencia y para las Administraciones Territoriales* debería autorizar la celebración de esta consulta popular porque el Ayuntamiento de San Sebastián cumple con todos los requisitos, procedimentales y materiales, previstos en la legislación vasca y española en materia de consultas.

- **Procedimentales:** la decisión del Ayuntamiento de San Sebastián viene respaldada por la mayoría absoluta del Pleno municipal.
- **Materiales:** se cumplen los cuatro requisitos materiales que la normativa exige para la celebración de consultas populares:
 - ✓ *“El asunto es de competencia propia municipal”:* el Ayuntamiento de San Sebastián somete a consulta popular de los vecinos el uso o no de una instalación municipal multiusos, que es de *“dominio público”*. De hecho, el inventario de bienes municipales la califica como *“pabellón multiusos”* y cita, literalmente, el *“uso taurino, actividades deportivas o de espectáculos alternativos”*.
 - ✓ *“La materia debe ser de carácter local”:* siguiendo el criterio de la sentencia del Tribunal Supremo de 14 de noviembre de 1989, es indudable que afecta al ámbito territorial del municipio sin superar los límites geográficos de San Sebastián.
 - ✓ *“Asunto de especial relevancia para los intereses de los vecinos”:* es de un tema de evidente interés para la ciudadanía de San Sebastián
 - ✓ *“Asuntos que no sean relativos a la Hacienda Local”:* no es el caso.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

HAZITEK, PROGRAMA DE APOYO A LA I+D EMPRESARIAL EN EUSKADI, ACTUALIZA SU NORMATIVA PARA OPTIMIZAR LOS PROYECTOS

El Gobierno Vasco ha decidido regular el programa HAZITEK, que apoya la I+D Empresarial en Euskadi, para mejorar su funcionamiento operativo y optimizar su adaptación a la estrategia de trabajo definida en este ámbito.

Se ha considerado aconsejable introducir cambios en la normativa, de manera que responda mejor a la necesidad detectada de que las ayudas se resuelvan en plazos operativos. De esta forma se gana el deseado efecto tractor y motivador de los proyectos I+D que se apoyan, y que están destinados tanto a grandes empresas como pymes, y a los agentes Científico-Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, para los proyectos de carácter competitivo de lanzamiento de nuevas empresas de base tecnológica.

Por ello el programa se articulará a partir de ahora en dos fases diferenciadas:

- Una de selección de proyectos, independiente de la gestión presupuestaria, que abarcará la presentación y evaluación técnica de los trabajos y culminará con la selección y comunicación de los proyectos aprobados.
- Otra de concesión de ayudas, que resolverá la subvención a conceder a aquellos proyectos que, habiéndose seleccionado en la fase anterior, cumplan con todos los requisitos del programa.

El objetivo que se busca con esta modificación es adelantar a las entidades beneficiarias la comunicación de los proyectos aprobados al inicio del periodo de ejecución, o incluso con anterioridad a su puesta en marcha, lo que permitirá el esperado efecto incentivador de los proyectos, permitiendo mejorar la planificación de los mismos.

Asimismo se incorpora a la normativa la tramitación telemática/electrónica.

EL GOBIERNO RESUELVE LAS AYUDAS A LA EXTENSIÓN DE REDES DE BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACIÓN EN POLÍGONOS EMPRESARIALES DE EUSKADI

El Gobierno Vasco ha resuelto las ayudas a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en polígonos empresariales de Euskadi. Los detalles de esta información se presentarán próximamente en una rueda prensa conjunta con las Diputaciones Forales.

Hacienda y Economía

DECRETO POR EL QUE SE AUTORIZA LA REALIZACIÓN DE OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO POR UN IMPORTE MÁXIMO DE 1.451 MILLONES DE EUROS PARA 2017 PREVISTAS EN EL RÉGIMEN DE PRORROGA DE LA LEY DE PRESUPUESTOS DE EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha autorizado de conformidad con lo aprobado y previsto para este ejercicio en materia de endeudamiento por la Ley por la que se aprueban los Presupuestos para el año 2016, en régimen de prórroga, la realización de operaciones de endeudamiento.

Considerando las operaciones de endeudamiento al cierre de 2016 y las amortizaciones a realizar durante 2017, el importe máximo de endeudamiento a formalizar en el presente ejercicio se sitúa en 1.451 millones de euros.

El endeudamiento que se formalice durante el presente ejercicio deberá garantizar el cumplimiento del objetivo de deuda pública acordado para 2017.